



LIBURUA

Itsasargiak ez dira inoiz betiko itzaltzen



URTEBETE ITSASARGIAN MIREN AGUR MEABE

ELKAR, 2006
ELEBERRIA (HAUR ETA GAZTE LITERATURA)

AMAIA SERRANO MARIEZKURRENA

Duela gutxi ikusi nuen Ahotsak Ahozko Ondareak egindako *Zer da gerra? 1936ko gerra gaztetxoan bihotz-begietan* dokumental laburra. Bertan ikusten da zer ideia duen bakoitzak gerraz, eta haurren ezezagutza gazteek osatzen dutela jakiteak lasaitu egiten du bat.

Nolanahi ere, etxean gerraz hitz egin dietenek nahiz jarauntsi hori jaso ez dutenek Haur eta Gazte Literaturaren bidez ere badute ezezagutza hori erdiesteko aukera: Martin Ugalderen *Itzulera baten historia* (1991), Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* (1991), Joseba Sarrionandiaren *Kolosala izango da* (2003), Miren Agur Meaberen *Urtebete itsasargian* (2006) eta Patxi Zubizarretaren *Hiru gutun Iruñetik* (2012)

dira, besteak beste, gaiari heltzen dioten nobelak, ertz ezberdinetatik heldu ere.

36ko Gerraren amaieratik 80 urte pasa direnean, Haur eta Gazte Literaturak literarioki egindako ekarpenak oso aintzat hartzekoak dira: haurren bidez jasotako testigantzak, deserriaren sentimendua, kontzientzia-pizteak, ideologia ezberdinetako pertsonaiak (makiak, sozialistak, nazionalistak eta abar), eta emakumeek gerran izandako askotariko rola agertzen dira erregistro, narratzaile eta genero literario ezberdinak uztartzen dituzten eleberrietan. Ezaugarri horiek are bereziago bilakatzen dira, kontuan harturik helduentzat sortutako eleberrietan baino lehenago agertzen direla.

Hala bada, Miren Agur Meabe izan da

gerrari buruzko nobela bat idatzi duen lehen emakumea. Gerra hasitakoan osaba farozainarengana joan behar duen Jon gazteak kontaktzen dizkigu gertaerak. Narratzaile rola berea izanagatik, ahots ugari biltzen dira narrazioan, esaterako emakume aktibistena (haien aldarrikapena beste eleberrietan baino argiagoa da, gainera). Metaforaz eta konparazioz beterik, azpigeno ezberdinak uztartzen dira nobelan (egunerokoa, gutuna, narrazio lirikoak), eta gerraurreko euskal kulturako zenbait sorkuntza lanen eta proiekturen berri ematen da. Gertakari historikoen lekuko, itsasargiak 1936ko gizarte gatazkei, genero rolei eta kultur talkei begiratzen die, irakurleari ahanzturaren itsaso zabaletik ateratzeko bidea eskainiz. ●